

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BIZKAIKO  
ESPERIENTZIA  
GELAK  
AULAS DE LA  
EXPERIENCIA  
DE BIZKAIA**

**IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA:** [HISTORIA DE LA INTEGRACIÓN EUROPEA – LA UNIÓN EUROPEA](#)

**Irakaslea/Profesor/a:** **Asier García Lupiola**

**Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura**

Irakasgaiak Europaren integrazio prozesuaren garapena aurkezten du, hastapenetatik egungo Europar Batasuneraino. Lehenengo zatiak garapen historikoa du ardatz: Europako batasunaren inguruko hasierako ideiak, Europako Erkidegoen hasiera, eta horien bilakaera eta erreformak XXI. mendeko Europar Batasuneraino. Bigarren zatiak Europar Batasunaren helburuak eta oinarriak, egitura instituzionala, barne funtzionamendua, barne merkatua eta Europar Batasuneko herritartasuna aztertzen ditu.

**Gaitasunak/Competencias**

- Europako herrialdeen eta herrien arteko harremanak zer testuinguru politiko-sozialetan garatzen diren ezagutzea.
- Europaren integrazio prozesuaren garapenaren eta bilakaeraren oinarriak ulertzea.
- Gaur egun Europaren integrazio prozesua gauzatzen duen erakundearen helburuak eta balioak identifikatzea.
- EBko antolaketa sistemaren funtzionamendua ulertzea, baita barne merkatuarena ere.
- Eskura dauden tresnak erabiltzea Europaren eta Europar Batasunaren integrazio prozesuaren ezagutzan sakontzeko

**Edukiak/Contenidos**

1. Europaren "batasuna" historian zehar
2. Europaren eraikuntza prozesua: Europako Erkidegoak (1950-1990)
3. Europaren eraikuntza prozesua: Europar Batasuna (1990-)
4. EBren helburuak, antolaketa eta zuzenbidea
5. Barne-merkatua eta Ekonomia eta Diru Batasuna
6. Europar Batasuneko herritartasuna

### **Metodologia**/Metodología

Esperientzia Geletan ematen diren irakaskuntzen izaerak berekin dakar eskola magistralen baliabidea prestakuntzarako elementu nagusi gisa. Hala ere, ikasleek ikasgelan ahalik eta parte-hartze handiena izatea sustatzen da, ez bakarrik zalantzak argitzeko galderen bidez, baita Europarekin eta EBrekin lotutako esperientzia profesionalak eta bizi esperientziak azalduz eta Europaren integrazio prozesuaren bilakaeran hartutako erabakien inguruan hausnartuz ere. Horretarako, irakasgaiaren garapena irakaskuntzako metodologia aktibo desberdinetako hainbat elementu eta tresna aplikatzen saiatuz planteatzen da neurri batean, hala nola problemetan oinarritutako ikaskuntza, kasuaren metodoa edo ikaskuntza kooperatiboa.

### **Ebaluazio sistema**/ Sistema de evaluación

Bizkaiko Esperientzia Geletan Giza Zientzietako Unibertsitate Titulurako ezarritako sistemaren arabera, irakasgaia gainditzeko beharrezkoa da eskolen % 80ra bertaratzea.

Azken kalifikazioa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan: bertaratzea, ikasgelan aktiboki parte hartzea, irakasleekiko komunikazioa eta idatzizko lan bat egitea (borondatezkoa).

### **Bibliografia**/Bibliografía

Irakats materiala: Garcia Lupiola, A. (2023), Visión general del proceso de integración europea y de la actual Unión Europea, EHUko Argitalpen Zerbitzua. Eskuragarri: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/> (sarbide irekiko liburuak, Gizarte eta Lege Zientziak)

Ikastaroaren hasieran bibliografia eguneratua eta online eskuragarri dauden dokumentu iturriak emango dira. Era berean, irakasgaiak eGelan duen guneak kontsultarako material ugari izango du (artxibo eta esteken bidez).